

**MOZIO /ADIERAZPENA:ELKARBIZITZAREN ALDE ETA ERTZAINZA ETA
UDALTZAINGOEN DEFENTSAN**

Herritarren arteko elkarbizitza eta segurtasuna dira gizarte demokratiko ororen oinarritzko zutabe. Ertzaintza eta udaltzaingoak, Euskal Polizia Kidego guztiak, funtsezko elementu dira herritarren segurtasuna eta legeen betepena bermatzeko. Euskal herrikide ditugun aldetik, babesten duten Herritik hurbil egiten dute beren lana, mendebaldeko gizarteetako estandar demokratikoak betez. Erakundeei dagokie Ertzaintzak zein udaltzaingoek gure gizartean egunero egiten duten lana babestea eta balioestea.

Hala ere, azken asteotan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldeetan, udaltzaingoen eta Ertzaintzaren kontrako eraso larriak eta seinalamenduak egin dira, soilik beren lana egin dutelako. Polizien bulego eta tokiak erasotzera eta euskal polizien lana eragoztera iritsi dira.

Halaber, seinalamendu eta mehatxu larriak egin dira hiritarrek aukeratuta gobernuan lan egiten duten ordezkari publikoen kontra. Iraganeko garaiak gogora ekartzen dizkiguten jarduera eta jarrerak dira horiek. Erakunde guztiek eta ordezkari publikoek ekintza hauëk guztiak salatu eta gaitzetsi behar dituzte, sekula babestu gabe, berriro gerta ez daitezen.

Hori dela eta _____ko Udalak, errespetuan oinarritutako kultura demokratikoa eta elkarbizitzaren printzipioak betez, ondorengoak proposatzen ditu;

- 1) Ertzaintzaren, udaltzaingoen eta ordezkari publikoen kontrako **erasoak, seinalamenduak eta jokaera bortitzak gaitzestea.**
- 2) **Ertzaintzak eta udaltzaingoek** hiritargoa babesteko **egiten duten ezinbesteko lana aitortzea**, eta egiten duten lana erabat babestea.
- 3) Ertzaintzaren, udaltzaingoen eta ordezkari publikoen kontrako **jokaera bortitzak eta mehatxuak bertan behera eskatzeko deia egitea**, errespetuan oinarritutako elkarbizitza bermatzeko.
- 4) Ertzaintza euskal autogobernuaren adierazgarri eta polizia hurbil eta demokratikoaren eredu dela **adieraztea.**